

GALDETEGIA
BERDINTASUN TEKNIKARIA
LEZOKO UDALA
2024ko apirilaren 25ean

1- Nortzuk dira EAEn etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobia emateko Erakundeen arteko II. Akordioaren sinatzaileak?

- A) Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiak, EAeko Fiskaltza Nagusia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta abokatuen elkargoak.
- B) Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiak, EAeko Fiskaltza Nagusia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta Osakidetza.
- C) Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiak, EAeko Fiskaltza Nagusia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta Euskadiko Udalen Elkarte (Eudel).
- D) Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiak, EAeko Fiskaltza Nagusia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eta Estatuaren abokatutza.

2- Zein da EAEn etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobia emateko Erakundeen arteko II. Akordioaren helburua?

- A) Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeak babesteko jarduketa polizialak eta judizialak koordinatzea.
- B) Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eremu horretan, eta jarduteko jarraibide homogeenak ezartzea Euskal Autonomia Erkidego osoan.
- C) Jarraipen Batzordea eta Erakunde arteko Talde Teknikoa sortzea.
- D) Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-protokoloan jasotako neurriak eta jarraibideak benetan aplikatzen direla bermatzea.

3- Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 22. artikulua denbora-tartean plangintza modu zuzenean egiteko ekintzak aipatzen ditu:

- A) Baieztatuz, emakumeen eta gizonen artean denbora-tarteak modu zuzenean banatzeko helburuarekin, toki-korporazioek hiriko denbora-tarteak antolatzeke udal-planak egin behar dituztela, autonomia-erkidegoek eta Estatuak esku hartu gabe.
- B) Baieztatuz, emakumeen eta gizonen artean denbora-tarteak modu zuzenean banatzeko helburuarekin, toki-korporazioek hiriko denbora-tarteak antolatzeke udal-planak egin ahal izango dituztela.
- C) Baieztatuz, Estatuak bakarrik duela eskumena emakumeen eta gizonen arteko denbora-tartean banaketa zuzenean aurrera egitea ahalbidetuko duten ekintzak ezartzeko.
- D) Baieztatuz, emakumeen eta gizonen artean denbora-tarteak modu zuzenean banatzeko helburuarekin, toki-korporazioek hiriko denbora-tarteak antolatzeke udal-planak egin ahal izango dituztela, autonomia-erkidegoek eta Estatuak esku hartu gabe.

4- EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planen jasotakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko zein elkarte-motatan dira gehiengoa gizonak?

- A) Emakumeak gehiengoa dira borondatezko elkarte guztietan.
- B) Gizonek parte-hartze handiagoa dute kirol-elkarteetan, auzo-elkarteetan eta ingurumen-erakundeetan, non boluntariotzaren gehiengoa osatzen duten.

C) Gizonek parte-hartze handiagoa dute gizarte-laguntzako erakundeetan, garapenerako lankidetzak-erakundeetan edo erlijio-erakundeetan, non boluntariorantzaren gehiengoa osatzen duten.

D) Gizonak gehiengoa dira borondatezko elkarte guztietan.

5- Noiz erabiliko da “genero-indarkeria” terminoa?

A) Indarkeria matxistaren biktima emakumea denean.

B) Etxeko emakumeen aurkako indarkeria matxista denean.

C) Emakumeen aurkako indarkeria matxista bikotekideak edo bikotekide ohiak edozein modutan egiten duenean.

D) Indarkeria matxista emakumeek edo neskek etxean jasaten dutenean.

6- Gipuzkoako Emakumeen Etxeen kudeaketari dagokionez, adierazi aukera zuzena:

A) Emakumeen Etxe guztiak udalek kudeatzen dituzte zuzenean.

B) Emakumeen Etxe guztiak elkarte feministek bakarrik kudeatzen dituzte.

C) Emakumeen Etxe guztiak eredu kogestionatuak dituzte beren garapenerako.

D) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

7- Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, herri-administrazioek, kasuan kasuko eskumenen esparruan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatuz, honako betebeharrak izango dituzte:

A) Erraztasunak ematea, norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzeko, lanbide-aurrerakuntzari kalterik egin gabe.

B) Erraztasunak ematea emakumeei, norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzeko, lanbide-aurrerakuntzari kalterik egin gabe.

C) Erraztasunak ematea gizonei, norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzeko, lanbide-aurrerakuntzari kalterik egin gabe.

D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

8- Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 28. artikulua aitortzen du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza eta adinekoentzako egoitza publikoak eskuratzeko aukera dutela, izan ere:

A) Lehentasunik gabeko kolektiboa dira.

B) Lehentasunezko kolektiboa dira, beste kolektibo zaugarri batzuk bezala.

C) Eskuratzeko kolektibo eskusiboa dira.

D) Lehentasunezko kolektiboa dira eskuratzeko orduan.

9- Ondorengo neurrietatik zeinek du eragin handiena zaintzan emakumeen eta gizonen erantzunkidetasunean?

A) Amatasun- eta aitatasun-baimen berdinek eta besterenezinek.

- B) Adingabeak (seme-alabak) zaintzeko eszedentziek.
- C) Familia zaintzeko eszedentziek.
- D) Gizonek aitatasun-baimena luzatzea ahalbidetzeak.

10- Zer da sexu-indarkeria?

- A) Espazio publikoan egindako erasoak eta abusuak dira.
- B) Nahi ez diren sexu-portaerak dira.
- C) Familian nahi ez diren sexu-portaerak dira.
- D) Familian eta lanean nahi ez diren sexu-portaerak dira.

11- “Lezoko eta Pasaiaiko Udalen indarkeria matxista bizi duten emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduketa- eta koordinazio-protokoloa”ren Erakunde arteko Koordinazio Mahaian parte hartzen duten pertsonen artean daude:

- A) Berdintasuneko teknikariak, gizarte-zerbitzuetako genero-indarkeriaren erreferenteak eta alkatetza.
- B) Udaltzaingoaren arduradunak, Ertzaintzaren herritarren babeserako buruzagitza eta berdintasun-zinegotzigoak.
- C) Berdintasuneko teknikariak, gizarte-zerbitzuetako genero-indarkeriaren erreferenteak eta Errenteriako osasun mentaleko zentroko gizarte-langilea.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

12- Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- A) Sexuaren banaketa binarioa eta genero-ugaritasuna daude askatasunez aukeratzeko.
- B) Sexu-genero sistema binarioa da botere-harreman patriarkalak artikulatzen diren oinarria.
- C) Generoa eta sexua funtsezko kategoriak dira.
- D) Sexuak sozializazio-prozesuei egiten die erreferentzia.

13- Sexuagatiko zuzeneko diskriminaziotzat jotzen al da laneko jazarpen sexista?

- A) Delitu gisa tipifikatzeari kalterik egin gabe, laneko jazarpen sexista sexuagatiko zuzeneko diskriminaziotzat hartzen da.
- B) Zuzeneko diskriminaziotzat hartuko da delitu gisa tipifikatzen den guztia, eta zeharkako diskriminaziotzat, falta gisa tipifikatzen den guztia.
- C) Laneko jazarpen sexista abusutzat hartzen da, eta ez erasotzat.
- D) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

14- Hautatu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako aukera:

- A) 4/2005 Legeak estatistiken egokitzapena, estatistika ofizialak sexuaren arabera bereizteko derrigortasunera mugatzen du.

- B) 4/2005 Legeak ez du aldagai edo adierazle berrien diseinurik aurreikusten, lehendik daudenak sexuaren arabera bereiztea lehenesten baitu.
- C) Legeak aurreikusten du estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzeko ezarritakoa ez betetzea justifikatu ahal izango dela.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

15- Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, herri-administrazioek modu aktiboan sartuko dute emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa

- A) Euren arau-xedapenak ematean eta betetzean bakarrik.
- B) Esparru batzuetako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera batzuk garatzean.
- C) Esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean.
- D) Euren arau-xedapenak ematean eta betetzean eta euren politikak zehaztean bakarrik.

16- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean, zer leku du emakumeen ahalduntze-eremuak?

- A) Ez da planaren ardatz bat, eremu bat baizik.
- B) Jarduketa-ardatz zehatza izateaz gain, proposatutako plangintza guztia bideratzen duen printzipioa da.
- C) Proposatutako plangintzaren zati bat bideratzen duen printzipioa da.
- D) VII. Planaren lehentasunezko jarduketa-ardatza da.

17- Lezoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana:

- A) 2020tik 2024ra bitarteko indarraldia du.
- B) Lezoko Udaleko teknikarien parte-hartzearekin bakarrik egin da.
- C) Plan irekia eta malgua da, eta urteko planen bidez garatzea aurreikusten da.
- D) Gobernu Onaren ardatzean berdintasunerako ordenantzaren berrikuspena jasotzen da ekintza gisa.

18- Denbora-aurrekontuen inkestak

- A) Herri-administrazioen aurrekontu orokorren atal bat dira, herritarren denboraren erabilera desberdinak kontuan hartzeko.
- B) Denbora produktiboaren eta erreproduktiboaren erabilerari soilik lotutako tresna dira.
- C) Denboraren erabilerak gizonen eta emakumeen artean duen banaketa desberdina aztertzeko aukera eman duten tresnak dira.
- D) Gizarteak, oro har, bere denbora nola erabiltzen duen erakusteko baino ez dute balio.

19- Berdintasun-politika espezifikoak emakumeen diskriminazio-egoerak zuzentzeko helburuarekin egiten hasi ziren

- A) Berdintasun-erakundearen bidez emakumeei zuzendutako neurriak dira.

B) Adibidez, konpentsazio-neurriak debekatzea, halako moldez non, meritu eta gaitasun bera izanik, sexua kategoria edo funtzio jakin batean gainordezkatuta duen pertsonak sarbidea izan dezan.

C) Horretarako kuota-erreserba erabiltzen da batez ere.

D) Berdintasun-erakunde bidez berariaz emakumeei zuzendutako neurriak dira. Horiek horrela, egoera desberdin baten aurrean, aldeko tratamendu desberdina ematen zaio desabantaila sozial handiagoa duen pertsonari.

20- Gure sistema sozioekonomikoak pentsatzen eta eraikitzen dira kontuan hartuta sistema horiek osatzen dituzten subjektuek

A) Zaintza-premia propioak dituztela.

B) Besteren zainketen gaineko erantzukizunak dituztela.

C) Ez dutela zaintza-premia propiorik, ez eta besteren zainketen gaineko erantzukizunik ere.

D) Lehenengo bi aukerak zuzenak dira.

21- Zein urtetan izan zen Seneca Falls-eko Konbentzioa?

A) 1789 (XVIII. mendea)

B) 1909 (XX. mendea)

C) 1805 (XIX. mendea)

D) 1848 (XIX. mendea)

22- Emakumeen ahalduzaren alde lan egiteko ideia, berdintasuna lortzeko beharrezkoa den zerbait den aldetik

A) Europar Batasunak proposatu zuen 1985ean.

B) Nairobini finkatu zen 1995ean.

C) Nazio Batuek proposatu zuten 1980an.

D) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

23- 1/2004 Lege Organikoak, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoak, mugimendu feministaren aldarrikapen historiko batzuk jasotzen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan. Hauetako zein EZ dago jasota lege horretan?

A) Ikuspegi integrala eta diziplina anitzekoa hartzearena.

B) "Genero-indarkeria" esamoldea erabiltzearena bikotetik kanpo gertatzen den indarkeria matxista ere aipatzeko.

C) Sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak txertatzeko beharrena, batez ere hezkuntzaren, osasunaren eta komunikabideen arloetan.

D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

24- *Mainstreaming*-a Nazio Batuen hurrengo Emakumeen Nazioarteko Konferentziaren ondoren sartu zen nazioarteko agendan

- A) Mexiko 1975
- B) Nairobi 1995
- C) Beijing 1985
- D) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

25- 4/2005 Legeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduketara gidatu eta bideratuko duten printzipio orokor gisa ezartzen ditu

- A) Genero-ikuspegiaren integrazioa, ekintza positiboa, rolak eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkariak orekatzea.
- B) Tratu berdina; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea, botere publikoen koordinazioa eta lankidetzak.
- C) Aurreko bi erantzunetan jasotako printzipio guztiak.
- D) Ekintza positiboa eta dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.

26- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoen barruan, estrategia dualtzat hartzen dugu

- A) Aukera-berdintasunerako politika espezifikoak eta genero-ikuspegiaren zeharkako estrategia uztartzea.
- B) Tratu-berdintasuna eta berdintasun-printzipioa sendotzeko estrategia uztartzea.
- C) Aukera- eta tratu-berdintasunerako politikak aplikatzeko modu desberdinak uztartzea.
- D) Aukera-berdintasunerako politikak aplikatzeko modu desberdinak.

27- Ekintza positiboaren eta diskriminazio positiboaren arteko aldea.

- A) Ez dago alderik.
- B) Ekintza positiboko neurriak iritsiera-puntuan aplikatzen dira, eta diskriminazio positibokoak, abiapuntuan.
- C) Ekintza positiboko neurriak abiapuntuan aplikatzen dira, eta diskriminazio positibokoak, iritsiera-puntuan.
- D) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

28- Emakumeenganako indarkeria matxistari aurre egiteko, beharrezkoa da EAEko administrazioaren maila desberdinen eta esparru ugariaren inplikazioa.

- A) Horretarako, 1992an sinatu zen "Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakundearen arteko I. Akordioa".
- B) Horretarako, 2001ean sinatu zen Arartekoak sustatutako "Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakundearen arteko I. Akordioa".
- C) Horretarako, 2009an sinatu zen "Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko Erakundearen arteko II. Akordioa", Espainiako Estatuak berretsitako Istanbulgo Hitzarmenera egokitzeko.
- D) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

29- Lezoko Udalaren “Indarkeria matxista bizi duten emakumeei arreta hobe emateko erakundeen arteko jarduketa- eta koordinazio-protokoloa”k

- A) Indarkeria matxistak edo sexistak eragindako heriotzen aurrean Oarsoaldeko Udalen erantzun instituzionala jasotzen du.
- B) Ez du jasotzen indarkeria matxistak edo sexistak eragindako heriotzen aurrean Oarsoaldeko Udalen erantzun instituzionala.
- C) Oarsoaldeko Udalen erantzun instituzionala jasotzen du, genero-indarkeriako kasuak direnean bakarrik.
- D) Lezoko Udalaren kasuan erantzun instituzionala jasotzen du, baina ez Pasaiakoaren kasuan.

30- Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeak ahalduzko lehenengo eskolak urte honetan sortu ziren:

- A) 2015
- B) 2006
- C) 2011
- D) 2003

31- “Irudi eta mezu inklusiboak erabiltzeko Lezoko Udalaren gida”n, irudi androzentrikoak dira

- A) Gizonak bakarrik agertzen diren irudiak.
- B) Emakumeak modu estereotipatuan agertzen diren irudiak.
- C) Emakumeak presente dauden eremuak irudikatzean emakumeen parte-hartzea azaltzen ez denean, eta irudikatuta ere ez daudenean.
- D) Emakume gutxiago irudikatzen direnean gizonak baino.

32- Ekintza hauetako zein EZ dago sartuta “Lezoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana”ren “Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak” eremuan?

- A) Lezoko indarkeria matxistaren dinamikei buruzko ikerketa egitea.
- B) Puntu ilunak aldizka identifikatzea.
- C) Jaietan (ekitaldi handiak) eraso sexisten aurkako kanpainak antolatzea urtero.
- D) “Indarkeria matxistaren aurrean jarduteko protokoloa” herritarren artean zabaltzea.

33- Ekintza hauetako zein EZ dago sartuta “Lezoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana”ren “Emakumeen ahalduzko” eremuan?

- A) Talde bat prestatzea eta gaitzea Lilatonean eta herri-lasterketetan parte hartzeko.
- B) Udalerriko kale edo espazio publiko berriak izendatzerakoan emakumeen izenak kontuan hartzea.
- C) Lezoko historian emakumeek izan duten paperari buruzko ikerlanari ekitea, ikusaraztea eta zabaltzea.
- D) Lezoko Emakumeen Etxea martxan jartzeko prozesu parte-hartzaileari ekitea.

34- “Lezoko eta Pasaiaiko Udalen indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduketa- eta koordinazio-protokoloa”k

- A) Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arreta eta prebentzioa ditu esku-hartze eremutat.
- B) Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arreta du esku-hartze eremutat.
- C) Emakumeen aurkako sexu-indarkeria kasuetarako soilik esku hartzeko irizpideak jasotzen dituen protokoloa da.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

35.- Emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (CEDAW) ezartzen duenez, Konbentzioko kide diren Estatuak honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

- A) Emakumeen aurkako bereizkeria oro debekatzeko neurri egokiak, legegintzakoak eta bestelakoak hartuko dituzte, dagozkien zehapenekin.
- B) Euren konstituzio nazionalak indargabetuko dituzte, horietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa sartu ez bada.
- C) Emakumeen eskubideen babes juridikoa ekintza positiboan oinarrituta ezarriko dute, dagoen desberdintasun juridikoa konpentsatze aldera.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

36- Adierazi baieztapen zuzena

- A) Emakumeek ordaindu gabeko zaintza-lanetan denbora gehiago emateak eragina du emakumeek aisialdirako duten denboran.
- B) Zaintza-lana eremu pribatuan eta familia nuklearraren eremuan egiteak erraztu egiten du zaintza-lanetan genero-rolak erreproduzitzea.
- C) Emakumeek ordaindu gabeko zaintza-lanetan eta lan erreproduktiboetan denbora gehiago emateak zaildu egiten du enplegua lortzea gizonen baldintza berberetan.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

37- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eginkizunen arabera, zer esango zenuke dela?

- A) EAEko emakumeak hartzaile dituzten ekintzak sektorialki gauzatzeko erakunde bat.
- B) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko erakunde bat.
- C) Berdintasunerako toki-politikak kudeatzeko erakunde bat.
- D) Berdintasunerako toki-politikak koordinatzeko erakunde bat.

38- Lanaren sexu-banaketa:

- A) Lana antolatzeko sistema bat da, eta emakumeei bakarrik eragiten die.
- B) Lana antolatzeko sistema bat da, eta emakume batzuei eta gizon batzuei bakarrik eragiten die.

- C) Lana antolatzeko sistema bat da, eta irizpide hauek ditu espazioak bereizteko: funtzio sozialak, lanaren balio sinbolikoa eta materiala, pertsonen sexua.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

39- Etxeetan egindako etxeko eta zaintzako lanak:

- A) Ikusezin bihurtutako lana da, zeina nahitaez egin behar baita espazio publikoan egiten den lan produktiboa gauzatzeko.
- B) Barne-produktu gordinen kontabilizatzen ez den lana da.
- C) Emakumeek neurri handiagoan egiten duten lana da.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

40- Adierazi erantzun OKERRA. Genero-ikuspegia duen aurrekontu-azterketak:

- A) Emakumeak helburu dituzten aurrekontu-programak bakarrik aztertu behar ditu.
- B) Aurrekontu-gastuaren azterketan zentratzeaz gain, haren diru-sarreraren azterketa ere eduki dezake.
- C) Aurrekontuetan egindako murrizketek emakumeentzat genero-ikuspegitik izango dituzten ondorioak kontuan hartuko ditu.
- D) Emakume eta gizonentzat aurrekontuan sartutako ekintzen emaitza bereiziak identifikatzen saiatu behar du.

41- Pobreziaren feminizazioaren kontzeptuak, pobrezia buruzko datuetan emakume gehiago daudela adierazteaz gain:

- A) Emakumeek garatutako lanpostuen garrantzia kontuan hartzea dakar; oro har, lanpostu horiek kualifikazio txikiagoa dute.
- B) Pobrezia- eta kalteberatasun-egoera eragiten duten generoak baldintzatutako bizi-ibilbideen garrantzia kontuan hartzea dakar.
- C) Emakumeek beren lanpostuak utzi behar dituztela seme-alabak eta familiako beste kide batzuk zaintzeko kontuan hartzea dakar.
- D) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

42- Gender mainstreaming-a edo genero-zeharkakotasuna (“gure politika eta programa guztiak genero-ikuspegia islatzen dutela bermatzea”) zabaldu egin zen, hemen aipatu ondoren:

- A) Emakumeen IV. Mundu Konferentzia: Beijingo Ekintza Plataforma.
- B) Emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW).
- C) Emakumeen V. Mundu Konferentzia: Beijingo Ekintza Plataforma.
- D) Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzkoa (Istanbulgo Hitzarmena).

43- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, generoaren arabera aurreneko ebaluazioa egitea eskatzen da:

- A) Eremu publikoari eragiten dioten arau-proiektuetan bakarrik.

- B) Eremu pribatuari eragiten dioten arau-proiektuetan bakarrik.
- C) Nahitaezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko edozein administrazio-organok sustatutako arau-proiektu guztietan.
- D) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

44- Emakumeei aplikatu ohi zaizkien babes-ekintzak:

- A) Haurdunaldiaren lan-eremuko babes-neurriak ere neurri diskriminatzaileak dira.
- B) Lan-erregulazioaren esparruan, inoiz ez da egon emakumeei aplikatutako babes-ekintzarik.
- C) Ekintza positiboko neurriak dira.
- D) Emakumeei abantailak ematen dizkietenak dira, gutxiago edo ahulagoak direlako, eta, beraz, debekatuta daude diskriminatzaileak izateagatik.

45- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen izaera hau da:

- A) Zeharkakoa baino ez, bertan jasotako aginduei dagokienez.
- B) Integrala baino ez, bertan jasotako aginduei dagokienez.
- C) Zeharkakoa, integrala, instrumentala, aurrerakoia eta duala da, bertan jasotako aginduei dagokienez.
- D) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.